



ESPERIMENTUA: TENPERATURAK ALDATZEN AL DU JANARIAK LIZUNTZEKO BEHAR DUEN DENBORA?

Ikusi al duzu inoiz janari-lizuna? Zer motatako janaritan? Hartu zure sukaldeko janari-mota bat, eta diseinatu esperimentu bat, ikusteko tenperatura desberdinek (hotza, epela, beroa) nola aldatzen duten janariari lizuna sortzeko denbora.

SAIATU ASMATZEN: Zure ustez, lizuna desberdin hazten al da tenperatura desberdinetan?

ESPERIMENTUA EGITEAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Gogoratu aldatu behar duzun gauza bakarra tenperatura dela. Gainerako gauza guztiak berdin mantendu behar dira!

- Zer elikagai erabiliko duzu?
- Nola gordeko duzu?
- Non aurkituko dituzu tenperatura desberdinak? Zenbatekin egingo duzu proba?
- Ume txikiak iristen ez diren leku batean utzi esperimentu hau.
- Segurtasun-arrazoiengatik, itxi hermetikoki esperimentua, lizunak airearekin kontakturik izan ez dezan.

DATUAK

- Nola neurtuko duzu lizunaren hazkundera?
- Zenbatean behin begiratuko duzu?

ZER IKASI DUZU ESPERIMENTU HONETATIK? ZER GERTATU DA? ZERGATIK USTE DUZU GERTATU DELA?

Bizitza errealean...

ZURE USTEZ, ZERGATIK HOZTEN ETA IZOZTEN DITUGU JAKI-MOTA BATZUK?

GARAZIK (7 URTE) FRUTAREKIN EGIN NAHI ZUEN PROBA, "BAI BAITZEKIEN AZKAR LIZUNTZEN ZELA". MUGURDI BAT JARTZEKO LAU LEKU DESBERDIN HAUTATU ZITUEN: KANPOAN (HOTZA), BARRUAN (EPELA), BEROGAILUTIK GERTU (OSO BEROA) ETA IZOZKAILUAN (OSO HOTZA). BEROGAILUAREN ONDOAN JARRITAKOA LEHORTU EGIN ZEN BEREHALA, BAINA LIZUN PIXKA BAT ERE SORTU ZITZAION. BARRUAN JARRITAKO MUGURDIARI HAZI ZITZAION LIZUN GEHIEN. BIGARREN EGUNEAN, ANIMALIA BATEK JAN ZUEN KANPOKO MUGURDIA! IZOZKAILUKO MUGURDIA EZ ZEN LIZUNDU.

